

2011KO KONTRATAZIO-ZERRENDAK: INFORMAZIO-OHARRA

Pertsona interesatuek 2011ko aldi baterako kontratazio-zerrendetan duten egoera errazago egiaztatzeko, informazio-ohar hau argitaratzen da, Osakidetzako aldi baterako kontratazio-zerrendak egin eta kudeatzeko arauei buruz.

Argitaratzea:

2011ko martxoaren 7an, 1. lehentasuneko 2011ko kontratazio-zerrendak argitaratu ziren, dagokien web-orrian, bertara sartzeko bidea hau delarik:

<http://lc2011.osakidetza.net/> -> hizkuntza -> Zerrendak -> Behin-behineko zerrendak -> kategoría -> 1. lehentasuna

2011ko kontratazio-zerrendei buruzko arauak:

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko ERABAKIA (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6koa), Osakidetzan aldi baterako kontratazio-zerrendak egin eta kudeatzeari buruz.

Zerrendetan onartua izateko baldintzak:

1.- Dagokion kategorian 2008ko oposizio-fasea gainditu izana edo kategorian egun batean, gutxienez, lan egin izana, 2009ko urtarrilaren 1etik 2011ko maiatzaren 9ra bitartean eta, gainera, onartuta egotea 2008ko kontratazio-zerrendetan.

2.- Izena 1. lehentasuneko epean eman izana, 2011ko ekainaren 8tik 28ra.

3.- Behar den titulazioa izatea eta 2011ko ekainaren 28a baino lehen lortu izana.

Oposizio-nota:

Ofizios baloratu da 2006ko EPEko edo 2008ko EPEko notarik onena.

Dagokion kategoriako zerrendetan onartutako guztiak birkalkulatu egiten dira oposizio-fasean puntuazio handiena lortu duen izangaiaren gehienezko puntuazioaren arabera.

EPEko gehienezko puntuazioa onartutakoen zerrendaren oinean agertzen da.

Esperientzia-nota:

Batu egiten dira 2008ko EPEko oinarrien arabera esperientzia deialdi horretako eskabide-epeko azken egunera arte, gehi 2011ko abenduaren 31ko datarekin eguneratutako Osakidetzako esperientzia (azken hau 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren hamargarren atalean araututakoaren arabera).

Esperientziaren balorazioa, 2008ko EPEkoari dagokionez, birkalkulatuta dago 2011ko zerrendetan, hautaketa-prozesu bietan lortu daitekeen gehienezko puntuazioaren arabera.

Adibidea: zeladorea eta zerbitzuetako langilea

2008ko EPEan esperientzia-arloan lortu zitekeen gehienezko puntuazioa: 70 puntu

2011ko Zerrendetan esperientzia-arloan lortu daitekeen gehienezko puntuazioa: 60 puntu

2008ko EPE, esperientzia lanpostu/kategoria berean: 0,3 puntu 30 eguneko

2011ko Zerrendak, esperientzia lanpostu/kategoria berean: $0,3 * (60/70) = 0,2571$ puntu 30 eguneko

Euskera:

Zenbatuta daude 2012ko urtarrilaren 21era arte entregatutako hizkuntza-eskakizun guztiak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan euskera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuaren arabera (64. EHAA, 2003ko martxoaren 31koa), puntuazioak prozesu bakoitzari dagokion gehienezko puntuazioaren arabera kalkulatu dira, 160 puntu 2011ko kontratazio-zerrendetan:

1. HE: $160 \text{ren } \%5 = 8$ puntu

2. HE: $160 \text{ren } \%10 = 16$ puntu

3. HE: $160 \text{ren } \%15 = 24$ puntu

Portzentaje honen muga da kategoría bakoitzari dagokion hizkuntza-eskakizunarena.

Ordena:

Osasun-barruti edo zentro bakoitzean lortutako posizioa da, lanpostu hutsen zerrenda ala ordezkapenen zerrenda den.

2011KO KONTRATAZIO-ZERRENDAK: INFORMAZIO-OHARRA

Berdinketa hausteko irizpideak (ordena honi jarraituz):

- 1.- Lehentasuna emango zaie emakumeei Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunerako martxoaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera dagozkien kategoria eta lanpostu funtzionaletan (adibidez, zeladorea, mantentze-lanetako ofiziala, ofizial gidaria, ingeniari teknikoa, informatikaria eta zenbait espezialitate mediko).
- 2.- oposizio-nota.
- 3.-esperientzia-nota.
- 4.- euskera-nota.
- 5.- lehen kontratua kategoria/lanpostu funtzional berean.
- 6.- lan egindako egun-kopurua
- 7.- lehenagoko jaiotze-data.

Zerrenden indarraldia:

Zerrenda bakoitza web orrian behin-behineko zerrendak argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Zerrendetan izena emateko epea berriz irekitzea:

Zerrendak etengabe irekita daude ondoko talde profesional hauetako kategoria/lanpostu funtzionaletarako: Fakultatibo Medikoak, Erizainak, Erizain Espezialistak eta Emaginak

Gainerako kategorietan, ez dago aurreikusita zerrendak berriz irekitzea. Hala ere, detektatzen diren beharren arabera, zabaldu litezke eta, kasu horretan, <http://www.osakidetza.euskadi.net/> webean jakinaraziko litzateke.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 9a.